

DEL POZO FLÓREZ, J.A. (2012)

Competencias profesionales. Herramientas de evaluación: el portafolios, la rúbrica y las pruebas situacionales. Madril: Narcea

Ezer baino lehen, liburuari eskertu behar zaio hain izenburu deskriptibo eta esanguratsua, izan ere, horixe baita da barruko orriotan garatzen duena. Eta argia, atsegina, didaktikoa (egitura, grafikoak, irudiak, adibideak...) eta arina ere (ez da 140 orritara iristen) badela esan daiteke esfortzu handirik gabe. Lan kompetentzien garrantzia azpimarratzen hasten da baita garbi utzi bere helburua zein den: ikas-erakundeen lan egiten duten profesionalen lan kompetentziak ebaluatzeko teknika eta baliabide multzo bat erakustea hain zuzen.

Pertsonok alde positiboez eta ahulgunez, lorpen eta zailtasunez jabe izatea funtsezkoa da bizitzan zehar ikasten jarraitzeko; ikaste-prozesuaren ardura norberarena izan behar da, beste edozeren gainetik eta prozesu honetan ebaluazioa kilikagarria izateaz gain, hurrengo urratsetarako ere bultzatzailea izan behar da.

Hori dela eta, bost ataletan dago egituratuta liburua: lehenbizikoa lan kompetentziak zer diren eta nola ebaluatzen diren zehaztera zuzenduta dago. Abiapuntutzat hartzen da kompetentziak soilik egoera errealetan eta kinka zehatzetan sorturiko emaitzetan direla behagarriak eta hiru baliabide egoki direla hauek ebaluatzeko, hain zuzen, azpituluan agerian utzi eta hurrengo hiru ataletan garatzen dituenak.

Horiatariko lehenengoari buruz ari da bigarren atala: kompetentzien karpeta edo portfolioa. Zer den, zertarako balio, zeintzuk osagai ditu, zeinei dagokio egitea, zenbat mota dagoen eta, atalari bukaera emanaz zatirik luzeenean, kompetentzien karpeta baten diseinua jorratzen du, taula diferenteekin —adibide gisa— hornituz.

Hurrengo atala errubrikari buruzkoa da. Motak, nola diseinatu eta aplikatu eta —berriro zatirik luzeena praktikotasunari zuzendua— bost eredu eskainiz (autoebaluaketarako, egunerokorako, ahozko aurkezpenarako, lan idatzietarako eta taldekide batek talde lanean egiten duen ekarpenarako) egituratuta dago hirugarren atala.

Lan konpetentziak ebaluatzeko egoerako frogak planteatzen ditu laugarrenean eta berriro hemen motak, nola egituratu halakoren bat eta eredu bat eskainiz osatuta dago, azken honetan sakonduz definituta dagoen drama tailerraren bitartez.

Azken atala kasu praktiko bati zuzenduta dago: «jarduerak naturan» izeneko Goi Zikloko Gizarte- eta Kultur-Animazioa lanbide heziketarako modulu bati dagokiona. Testuingurua argitze aldera, lehendabizi konpetentzien osagai nagusiak azaleratzen dira, ikasketa emaitzak eta edukiak zehazten dira gero eta bukatu egiten da —ikasleei aurkezten zaien bezala— gai tematiko zehatz horrekin, eginbeharrekoak banan-banan zehaztuz.

Glosarioa eta bibliografiarekin bukatzen da liburu samur hau, planteamendu teoriko sakonak baino erabilgarritasunari bideratua, gaurkotasun handiko lan konpetentziak ebaluatzeko hiru teknika aurkezten dituen modu ulergarrian. Testuinguru honetan agerian utzi behar da bere ekarpena baina bere muga ere.

K. Burgoa

FARELLO, P. eta BIANCHI, F. (2012)

Describir. Implicaciones psicológicas, pedagógicas y sociales. Madrid: Narcea

«Didáctica de las Operaciones Mentales» izeneko bildumatik laugarrena da liburu hau. Aurreko aleak «1. Comprender, 2. Crear eta 3. Evaluar» izan dira hurrenez hurren eta guztira 12 izango dira («5. Experimentar, 6. Juzgar, 7. Observar, 8 Producir, 9. Reflexionar, 10. Comparar, 11. Formular hipótesis eta 12. Interpretar»). Liburua beraz, ezin da zentzua ematen zaion bildumatik isolatua ikusi, nahiz berezko entitate eduki. Bilduma bera ikertzen diren objektu edota fenomenoetatik haratago doa, garrantzitsuena garunak duen funtzionamendua, egiten dituen operazioak baitira eta hori da alez ale bilduma honek ematen diguna.

Deskripzioarenak ez du izaten lehentasuna eskola mailan eta gutxitan aintzat hartzen da nahiz ekarpen garrantzitsua egiten dion ikasleen ezagutza kognitibo, emotibo eta etikoari. Egileek agerian jartzen dute hautematen ikastea eta ikusitakoa (objektuak, emozioak, gertakizunak) egoki komunikatzea ez dela inondik inora erraz, ageriko eta neutralki egiten dena;

aldiz prozesu guzti honen konplexutasuna eta behatzailearen paper aktiboa azaltzen dute buruko operazioen oinarri teorikoak azalduz, baita bere inplikazio psikologiko, pedagogiko eta sozialak ere.

Horretarako, bilduman agertzen den eskema errepikatzen da oraingo honetan ere: hitzurre laburrari (bildumaren egitura eta liburu bakoitzarena) lehenengo zatiak jarraitzen dio «Eredu teorikoak» izeneko eta hiru ataletan jorratzen ditu «Deskribatzeko hezi», «Narratibotik deskripzioa» eta «Deskripzioetik deskripzio jarduerara» hurrenez hurren eta horien jarraian, pare bat orritan «Ondorioak» jasotzen ditu.

Bigarren zatia «Aplikazio praktikoak edo eredu operatiboak» izeneko eta eta lau proposamen didaktikoen inguruan atal hauek garatzen dira: «Haute-matetik deskripzioa», «Deskripzioa Natur Zientzietan. Ingurunea ezagutzeko ibilbide zentzumenezko eta hautematezkoak», «Terrario baten eraiketa. Sistema biologiko naturala bilakaeran behatzen eta deskribatzen ikasteko» eta azkenean «Tailer autobiografikoa» izeneko. Bi proposamen didaktiko Lehen Hezkuntzarakoak dira eta beste bi Bigarren Hezkuntzarakoak baina adibide gisa planteatuta, oso erraz ikus daiteke maila ezberdinetarako ahalezko ego-kierak. Bibliografia eta bibliografia iruzkinduarekin itxi egiten da ale hau.

Bilduman ohikoa denez, liburu honek ere hasiera-hasieratik gertutasuna bilatzen du irakurlearekin. Hizkera zuzena eta ulerkorra da liburuaren ezaugarria eta honekin batera atsegin eta gertuko izan nahi izatea ere; horren adierazgarria hain ugari azaltzen diren fitxak, ariketak, eskemak, marrazkiak baita jolasak ere: bosgarren atala bost jolasen inguruan dago egituratuta: «Zuhaitz bat deskribatu», «Usainak eta lurrinak aurkitu», «Zaporea aurkitu», «zein zuhaitz, zein lore den asmatu» eta «Soinua eta zarata bilatu eta izen bana eman».

Esan genezake hautematea eta komunikazioa oinarritzko ardatzak direla Patrizia eta Ferrucciok argitaratutako ekarpen honetan, «Didáctica de las Operaciones Mentales» izeneko bilduman egoki kokatzen dela eta bilduma honek ohiko dituen parametroetatik elikatzen dela, irakaskuntza maila guztietarako gonbite ireki eta atsegin gisa uler dezakeguna.

K. Burgoa

DEBORAH M. PLUMMER (2013)

Cómo AYUDAR a los NIÑOS a superar el ESTRÉS y la ANSIEDAD.
Madril: Narcea

Haur askok zailtasunak izaten dituzte bizitzan aurkitutako zenbait egoera ezberdinari aurre egiteko momentuan. Zailtasun hauek estresa eta antsietatea eragiten diete eta askotan helduen laguntza behar izaten dute beren sentimendu eta emozioak ezagutu eta onartzeko. Hau dela eta, hel-

duok hurrekin elkarrekintzan aritu ahal izateko era egokian aldez aurrekin jakin behar dugu guk geuk geure buruarekin elkarrekintzan aritzen, gure pentsamendu, sentimendu eta jokaerekin alegia. Gure hitzek eragin zuzena izan baitezakete hurrek duten jokaera eta jarrerekin.

Edonork bere bizitzaren momentu jakin batetan estres egoeraren bat edo beste nozitu izan ohi du eta egoera hau gainditzeko norbera bere abileziak asmatzen saiatzen da, batzuetan besteetan baino arrakasta gehiago ala gutxiago lortuz. Dena dela, hurrei egoera hauek gainditzeko laguntzeko aukera gehiago izango ditugu baldin eta guk geuk geure indarrez eta ahuleziak jabe bagara, geure antsietatea eta urduritzen gaituzten egoerak ezagutzen baditugu eta, nola ez, horiek guztiak gainditzeko ditugun bideak eta estrategiak ongi asko ezagutzen baldin baditugu.

Estres egoerak nozitzen dituzten hurrei laguntzeko liburuxka honek ha- maika jarduera, jolasa eta estrategia eskaintzen dizkigu. Abiatzeko oinarri-oi- narrizko ezagutza teorikoa garatzen du eta ondoren hurrek beren bizipenen inguruan hausnartzen ikas dezaten jarduerak proposatzen ditu; hau guzti hau, norberaren buruarengan konfiantza garatzen laguntzeko eta bizitzarako hain garrantzitsuak diren trebetasun pertsonalak eta sozialak areagotzeko. Horrela, lehenengo atalean hurrekin laguntza eta sustenguan oinarritutako harreman egokia izateko kontutan hartu beharreko elementuak seinalatzeaz gain pen- tsamendu eta jokaeraren arteko loturak adierazten ditu; beteak beste, indartze positiboaren balioaz esaterako. Honetarako, ideiak eta aholkuak proposatzen dizkigute. Bigarren atalean aldiz, ondoko hiru eremuen inguruan jarduera multzo anitzak eskaintzen dizkigute: aldaketa, estresa eta antsietatea hain zu- zen. Hiru eremu horien inguruan hurrekin batera lanean hasteko abiapuntua eskaintzen digute, edozein dela haurra pairatzen ari den zailtasuna. Azken atalean, haurren beharrak ezagutzeko, beren lorpenak ospatzeko eta izandako aurrerapenak finkatzeko estrategiak eskaintzen dizkigute.

Guraso eta irakasleentzat liburu gomendagarria, atsegina eta aise ira- kurtzekoa da, estres eta antsietatea sorturiko egoeratan laguntzeko apropo- sa, adibide eta aholku ezberdinak aurki daitezke bertan.

Inaki Karrera

RUIZ DOMINGUEZ, X. (2013)

Educando con magia. El ilusionismo como recurso didáctico. Ma- dril: Narcea

Ez ohiko liburua honako hau, bai horixe! Beharbada bati baino gehia- gori gertatuko zaio hasiera batean urruntasunetik begiratzea; hala ere, ja- kin-minak bultzatuta begirada bere orrialdeetatik ibiltari ibiliko da, batean baino gehiagotan pausatuz. Eta bai, izenburuak diona horixe da eta horixe

bilatzen du: ikasleen arreta bereganatzea ikasketa prozesuaren abiapuntua izateko edo une ahulenetan arreta birbideratzeko.

Sarreran bertan egileak bere ikasle esperientziari egiten dio erreferentzia eta motibazioaren garrantzia jartzen du agerian, gaur egun ere —bere irakasle jardunean— funtsezkotzat joz. Eta motibatzeke ez ezik, baita zenbait gai azaltzeko, gatazketan bitartekariarena egiteko, jokabideetan eragiteko, auto-estiman eragiteko ere. Ikasleak harritzen, «ilusioztatzen», pentsarazten irakurlearen esku jartzen du hamaika posibilitate ikasteko, gozatzeko eta, nola ez, erakusten dibertitzeko.

Hiru multzotan dago egituratuta: «Magia eskolara eraman» du goiburua lehendabizikoak eta teorikoena da; bertan magiaren oinarri teorikoak jorratzen ditu jakiteko zergatik, noiz, nola, zertarako erabili magia baliabide didaktiko gisa.

Bigarrena mamitsuena da (9 atal) eta bertan kokatzen diren magia jolasak gaika: saski-naski gisa aurkezten duen hasierakoaren atzetik «Matemagia», «Hitzen magia», «Psikomotrizitatea eta magia», «Magia gorputzarekin», «Erronka magikoak», «Sormena garatzen», «Ilusio optikoak» eta «Magia tailerra» dira hurrenez hurren azaltzen direnak. Ikusten denez, oso aukera zabalean kokatuta landu nahi diren arloetarako. Agertzen diren magia jolas gehienak errazak dira eta oso egitura didaktiko eta argian azaltzen dira: izenburu eta sarrera xumearen ostean «Umee ikusten dutena» deskribatzen du eta jarraian «Benetan gertatzen dena»; hauekin batera, kasuan kasu, «Behar duzuna» azalekoa agertzen da, «Ipuina» (girotzeko kontatzen dena), «Nola egin», «Irakokizun didaktikoak», «Aldaera»... eta hori dena funtsezkoak diren marrazki ezin argiagoez hornituta, ulermen-arazorik ez izateko.

Azkenean, atal bakarreko hirugarren multzoa dugu; «Magiari buruz gehiago jakiteko» du izenburua eta magiaren historia laburra, ilusionismoaren aldaerak, inguruko arteak (globoflexia, bentrilokia), ilusionisten patroia eta magiari buruz gehiago ikasi nahi izanez gero zenbait informazio interesgarri eskaintzen ditu (dendak, elkarteak, liburutegiak...). Bukatzeko «Ondorio gisa» izeneko gibel solasa uzten du eta oso lagungarria den bibliografia iruzkindua.

Liburua hezkuntza sistemaren lehenengo mailetara zuzentzeko pentsatuta dago ere (Xuxo egilearen eremua hain zuzen), ezin baztertu bakarren bat edo beste unibertsitate mailan aplikatzea, zinez erakargarriak baitira eta harritzeko ahalmena ez dugu helduok agortu; mokoka bada ere, orrialdeok begiratzen hasiz gero, batean edo bestean gure begirada ainguratzea lortuko du egilea. Hortik ikasgelara eramatea ez da berehala emango, halako praktika (eta ausardia) beharrezkoa baita, baina liburuak eskaintzen duen bidea ikaragarri erakargarria da, zinez txalotzekoa.

J.M. Mues

GALETO M. eta ROMANO, A. (2012)

Experimentar. Aplicación del método científico a la construcción del conocimiento. Madril: Narcea

Galeto eta Romanok aurkezten diguten liburuak «esperimentazioan» sartzeko aukera ematen digu. Nahiz eta iruditu esperimentazioa, zientziari dagokion eremuaren zerbait dela, zientzia bera ikuspegi zabalago batetik begiesten dugunean beste jakintza-arlotara zabaltzen da. Galdera-erantzunetatik abiatzen den irakaskuntza-ikaskuntza ereduarentzat, esperimentazioa eta laborategiko praktikak estrategia didaktiko egokiak dira. Laneko modalitate hauek praktikara eramateak zerak esan nahi ditu: ikasleen aldetik jakintzen eraikuntza aktiboa estimulatzea, diferentziak baloratzea desberdintasunetan ez daitezen bilakatuz, lurraldearekin sareak eraikitzea, ikerkuntzarako gizarte-trebetasunen garapena aktibatzea, umeengan jarrera kritiko eta zientifikoa garatzea. Liburu honek bi zati ditu. Lehendabiziko zatian metodo zientifikoa sorterra eta garapenari buruzko zertzelada historiko batzuk aurkezten dira, tartean Hipócrates, Leonardo da Vinci, Galileo, Newton, Bacon, Darwin, eta Einstein, besteak beste, zientzialarien ekarpenak agertuz. Ondoren esperimentazioaren didaktikan bete-betean murgiltzen da lehendabiziko zati hau. Gelako lan zientifikoa eredu, antolaketa eta balorazioa, sarren eraiketa eta irakaslearen profila gisako alderdiak garatzen dira. Liburuaren bigarren zatian hainbat aplikazio praktikoa aurkezten dira. Aplikazio praktikoa hauek esperimentazioan oinarritzen diren proiektuen adibideak dira. Hain zuzen ere honako gaien inguruko proiektuak dira: glaziarak, geometria, historiaurreko artea. Adibide guztiak arazo edo egoeraren analititik abiatzen dira eta lan-taldeen bitartez garatzeko jarduera mota desberdinak planteatzen dira. Jarduera horietan, taldekide bakoitzak rol espezifikoa asumitzen ditu, beti ere taldearekiko elkarrekin mantenduz. Proiektu didaktiko hauek fase edo aldi desberdinen zerrenda eginez deskribatzen dira. Halaber, egiazko ikaskuntza lortzeko ume eta adolezenteek aktibatzen dituzten adimenezko eragiketak zehazten dira.

Ander Gorritxo

TORREGO, J.C. (koord.) (2012)

La ayuda entre iguales para mejorar la convivencia escolar. Manual para la formación de alumnos ayudantes. Madril: Narcea

Harreman eremua oso garrantzitsua izan da hezkuntza munduan azken hamarkada honetan. Adiskidetasunaren garrantzia eta elkarbizitza hobetzeko interesa, eskolako bizitza hobetzeko funtsezko elementuak dira. DBHko

ikasleen % 60k¹ adierazten du ia egunero beldurra pasatzen duela eskolan, eta bere ikaskideak direla beldur horien arrazoi nagusia. Honez gain, % 15ek beldurrak dagoenean ez dio inori komunikatzen bere sentimendua eta ondorioz, ez du batere laguntzarik jasotzen. Azken urte hauetan datuak hobetu diren arren, oraindik ere gizarte bazterketa sufritzen du DBHko ikasleen % 30ek.

Alcalako Unibertsitateko gradu ondoko ikasketa batzuen bitartez, berdinen arteko adiskidetasuna eta elkarlaguntza hobetzeko ekarpena ematen digun liburu hau irakasle, zuzendaritza talde, hezkuntza arduradun, eta abarri dago zuzendua. Bitartekaritza programak eta ikasle laguntzaileak ezartzeko proiektu bat martxan jarri eta emaitzetan onurak izan ondoren egiten zaigun eskaintza da.

Zortzi kapitulutan banatzen da proposamena:

1. Berdinen arteko laguntzaren garrantzia
2. Laguntzaile ikaskideen soslai, beren balore eta funtzioa.
3. Laguntza prozesuaren faseen ezaugarriak.
- 4.5.6. Berdinen arteko laguntzarako proposamenak
- 7.8. Programa aurrera eramateko material eta dokumentuak.
9. Inplikaturik izan diren ikasleen balorazioa. Ikastetxe batzuetan lortutako ondorioak.

A. Mendizabal

LEAMAN, L. (2012)

Los profesores «perfectos» existen: Descubriendo lo mejor de uno mismo

Louisa Leaman irakasleak ikasleen jokabideak aztertzen ditu. Ikastetxe askotan egin du lan eta mota eta adin desberdineko ikasleen irakaslea izan da. Neurri handi batean liburu hau bere eta izan dituen lankideen esperientzietan oinarrituta dago. Hau da, tamaina txikiko eta orri gutxiko (173 or.) liburuxka hau ez da eskuliburu teoriko bat, aitzitik, orientabide praktiko, argiak eta zehatzak ematen dizkigu irakasleoi eta irakaslea izan nahi duten guztiei. Hauxe da Louisa Leamanen bosgarren liburua irakaskuntzaren arazoei buruzkoa, eta aurrekoek bezala izenburu erakargarria du, ia probokazio hutsa, irakurtzeko zirikatzen gaituena. Aurreko liburuen izenburuak ezpal berekoak izan dira, hona kasurako: *Classroom Confidential* (2005) edo *The Naked Teacher* (2006).

¹ Ikus «Informe sobre violencia Escolar del Defensor del Pueblo» (2007) eta «Estudio Estatal sobre la Convivencia Escolar en la ESO» (MEC, 2010)

Liburu honek «perfecto» hitza erabiltzen badu ere, hori amua baino ez da irakasle on arreta erakartzeko eta irakasle on zereginen buruzko hausnarketa sakona proposatzeko. Liburuan zehar estilo zuzena erabiltzen du ia dialogikoa irakurlearekiko. Asmo praktikoa batetik abiatuta, liburuak erakutsi nahi ditu eguneroko eskolaren argi-ilunak, zer den erabilgarria eta zer ez, ikuspuntu kritiko batetik irakasle on eginkizunen aukera anitzak agertuz. Horrela, bada, *Los profesores «perfectos» existen* liburuak lanbidearen arazo nagusiak nola kudeatu ahal diren argitu nahi du: ikasle onen jokabidea, ikaskuntza eta irakaskuntza jarduerak, estresa, ikasleekin eta gainerako irakasleekin harremanak...

Liburua erraz irakurtzen da, argi idatzita eta kapituluak eta horien barruko atalak ondo taxaturik baitaude. Gainera, tipografia eta lauki ezberdinak erabiliz ondo bereizten dira atalak eta ideia nagusiak. Kapitulu bakoitzak hautatutako gaiari buruzko eduki nagusiaz gain, beste hiru atal hauek ditu: lehenik, eguneroko eskoletako protagonisten (irakasle onen zein ikasle onen) iritziak jasotzen ditu jorratutako gaiari buruz; bigarrenik, banaka zein taldeka hausnartzeko hainbat galdera eta iradokizun proposatzen ditu, horrela norberaren iritziak besteekin partekatuz, liburuaren irakurketa aberats daiteke; eta azkenik, kapitulu bakoitzaren amaieran, aztertutako ideia eta aholku nagusiak laburbiltzen dira. Hori dela eta liburuak irakurketa mota anitzak onartzen ditu.

Antolamenduari eta edukiari dagokienez, bost kapitulu eta azken hausnarketa dakartza liburuak. Lehenengo kapituluak irakatsi-estiloak jorratzen ditu, ikasle onen eta irakasle on arteko harreman motari garrantzia emanez. Alde horretatik, badira hainbat ideia irakasle on kontuan hartu behar dituztenak: irakasle on komunikazio gaitasuna eta irakasle on nortasuna eta jokaera. Bigarren kapituluak ikasle onen jartzen du arreta galdera baten bidez: zer egin behar den eskolatan ikasle onen ikas dezaten. Eta erantzuna lau ardatz hauek egituratzen dute: gaiari buruzko jakintza, irakasle onen planifikazioa eta ebaluazioa eta, azkenik eta garrantzitsuenak, ikasle onen motibazioa. Hirugarren kapituluak eskolako giroaz ari da: nola konpondu arazoak, zer-nolako mugak ezarri eta zer egin giro egokia sortzeko. Laugarren kapituluak erakusten digu nola antolatu behar den eskola eta nola kudeatu behar diren denbora eta espazioak. Bosgarren kapituluak eskolaz besteko eginkizunak aipatzen ditu: ikasle onen gurasoekin harremanak, beste irakasleekin harremanak eta eskolaz kanpoko aktibitateak.

Baten batek pentsa lezake liburu honek ez dakarrela gauza berririk; eta agian irakaskuntzan urte asko daramatenentzat horrela izan daiteke. Baina ez dago txarto noiz edo noiz gogoraraztea irakasle «perfektoa» errealitatea baino gehiago erronka bat dela, eta liburu honek horren bila joatera animatzen gaitu.

Kepa Larrea

Jasotako liburuak

BEAUDOIN, N. (2013)

Una escuela para cada estudiante. La relación interpersonal, clave del proceso educativo. Madril: Narcea